


GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA


Atzeritarren afiliazioa ia %10,0 hazten ari da

Gizarte Segurantzaz afiliatutako atzeritarrak
Urte arteko aldakuntza tasa




Gizarte Segurantzak eskainitako informazioaren arabera, erakunde horretan afiliatuta dauden atzeritarren kopurua %9,4 handitu zen apirilean, urte arteko tasan neurtuta. Tasa hori eta 2018ko hasieratik jaso direnak antzekoak dira, azken lau urteetako irailean eta urrian hauteman diren gorabehera horiek albo batera uzten badira, mahatsak biltzeko lanak 2015ean eta 2017an irailera aurreratu zirelako, ohiko hilekoan (urrian) egin beharrean. Kolektibo horren afiliazioaren gorakadak mesedea egiten die bai emakumeei bai gizonei, baina azken kasu horretan igoera zertxobait handiagoa da. Zehazkiago adierazita, emakumeen hobekuntza %8,1 izan zen eta gizonena, berriz, %10,4.

Gizarte Segurantzaz afiliatutako emakume atzeritarrak
Urte arteko aldakuntza tasa




Gizarte Segurantzaz afiliatutako gizon atzeritarrak
Urte arteko aldakuntza tasa




Europar Batasunetik etorri diren atzerritarrek

Urte arteko aldakuntza tasa

**Gainontzeko herrialdeetatik etorritakoak**

Urte arteko aldakuntza tasa



Atzerritarren jatorriaren arabera, Europar Batasunetik etorri diren lagunek %6,5 areagotu zuten beren afiliatuen kopurua. Aitzitik, jatorria ekonomia eremu horretatik kanpo dutenek %10,8ko aldakuntza tasa eskuratu zuten.

Atzerritarrek betetzen dituzten enpleguen egitura eta langile guztiena ezberdinak dira. Zehatz-mehatz adierazita, atzerritarren partaidetza batez bestekoaren gainetik dago etxe zerbitzuetan, eraikuntzan eta ostalaritzan. Beste muturrean, langile atzerritar gutxi daude administrazio publikoari lotutako jardueretan, industri- an eta lanbide jardueretan.

Gizarte Segurantzaren afiliatuta dauden lagunak. 2019ko apirila

	Guztira	%	Atzerritarrek	%
AFILIAZIOA GUZTIRA	963.089	100,0	64.829	100,0
Industria manufakturagileak	176.382	18,3	6.463	10,0
Merkataritza	137.568	14,3	8.160	12,6
Osasun arloko jarduerak	95.204	9,9	2.529	3,9
Hezkuntza	74.779	7,8	2.476	3,8
Ostalaritza	67.598	7,0	10.906	16,8
Administrazio jarduerak	65.503	6,8	4.640	7,2
Eraikuntza	56.665	5,9	7.642	11,8
Lanbide jarduerak	56.627	5,9	1.904	2,9
Administrazio publikoa	48.566	5,0	320	0,5
Garraioa	42.163	4,4	3.207	4,9
Etxeko langileak	30.271	3,1	11.086	17,2
Bestelako zerbitzuak	28.631	3,0	1.830	2,8
Informazioa eta komunikazioa	23.103	2,4	518	0,8
Finantza jarduerak	18.134	1,9	124	0,2
Jarduera artistikoak	16.761	1,7	863	1,3
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	12.542	1,3	1.787	2,8
Ur horniketa	6.071	0,6	220	0,3
Higiezin jarduerak	4.091	0,4	121	0,2
Energia horniketa	1.812	0,2	12	0,0
Erauzketa industriak	557	0,1	7	0,0
Lurraldez kanpoko erakundeak	60	0,0	12	0,0

Iturria: Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa.